# Astigarragako Sagar Uzta, Sagardoetxean

## SEGURTASUNA ETA AFOROA KONTROLATZEKO XEDEAREKIN, ASTEBURUKO FESTA FORU PLAZAN EZ EGITEA ERABAKI DUTE

AITZIBER MUGA / GORKA ESTRADA | 23.09.2020 | 00:58

*Vál



Hiru haur iazko Sagar Uztan muztioa prestatzen.

**ASTIGARRAGA** – Bihartik igandera arte XX. Sagar Uzta ospatuko da Astigarragan, hori bai ekitaldiak egungo egoerara egokitu beharko dira, segurtasuna bermatuz.

Azkeneko urteetan bezala, egitaraua bihar herriko tabernetan burutuko den sagarraren eratorriekin egindako pintxo-pote bereziarekin hasiko da.

Aldiz, asteburuan Astigarragako Foru plazan ospatu ohi den sagarraren azoka ez da egingo eta horren ordez, larunbatean eta igandean, herriko familien partaidetzarekin sagar muztioaren elaborazio tailerrak Sagardoetxean egingo dira, talde txiki eta txanda ezberdinetan antolatuta eta Goldea Herri Kirol Elkartearen laguntzarekin, aldez aurretik izena emanda.



HEMOS DISEÑADO UN HOTEL DE LUJO PARA QUE DESCONECTES DE TODO...Y CONECTES CONTIGO

En nuestro hotel podrás encontrar todo tipo de servicios para hacer de tus vacaciones una experiencia inolvidable: transfer privado para tus desplazamientos; gimnasio totalmente equipado para que puedas seguir con tu rutina de ejercicio; sauna en la que relajarte y purificarte; servicio de habitaciones con una extensa carta para satisfacer tus deseos... ¡Y mucho más!

RESERVA AHORA

Sagar muztioa egiteko jarduerak goizean izango dira, 10.30ean hasita, eta familia bakoitzak ordubete izango du muztioa lortzeko. Honako lanak egin beharko dituzte: sagar biltzea,

Buru




**Dos realidades contrapue**

La Diputación reconoce incidencias en autobuses de refuerzo y para Astigarra es



**Usurbil jator aniztasunare diagnostikoa da**



**Urnieta cierr municipales subida de la contagios**



**Web serie ba argazkilaritz irabazle**

Noticias

zakutan sartzea, leran garraiatzea, sagarrak pisoiekin jo-tzea eta matxakatik pasa ondoren, prentsatzea. Plaza mugatuak izango dira eta talde bakoitzean gehienez hamar pertsona onartuko dira. Izen-emateen arabera, talde eta txanda ezberdinak antolatuko dira.

Igandean, sagar muztioaren elaborazio lanak familian egiteaz gain, helduentzako kirikoketa jotzen ikasteko tailerra eta sagardo sagarren kata ere izango dira Sagardoetxean, Josu Osa adituaren eskutik. Barietate ezberdinetako sagarrak dastatuko dira: garratzak, mikatzak eta gozoak.

Aipaturiko jarduera hauek doan izango dira, baina plazak mugatuak izango dira eta beraz, sagar muztioaren elaborazio lanetan, kirikoketa tailerrean eta sagar katan parte hartu nahi duten herritarrek, aurrez izena eman beharko dute www.sagardoarenlurraldea.eus webgunean.




AD



¡ESTE OCTUBRE ESTÁ QUE ARDE!

Vuelve la Champions y ElClásico de LaLiga aMovistar con la mejor conexión por 57€/mes.

Muztioa egiteko ekintzari dagokionez, jarduera familian ondo pasa-tzeko da eta haurrek gurasoen laguntzarekin gauzatu beharko dituzte lanak. Jardueran parte har-tzen duten haurren adina zazpi urtetik gorakoa izatea eskatzen da. Ekintza honetan izena emateko azken eguna bihar izango da.

Kirikoketa tailerrean eta sagar katan inskripzioa egiteko azken eguna, ordea, larunbata izango da. Kirikoketa tailerra 10.30etik 12.30era burutuko da eta talde bakoitzak 30 minutuko azalpenak jasoko ditu. Kata, aldiz, 12.00etan hasiko da eta 45 minutu iraungo ditu. Bi ekintza hauek helduentzat bakarrik izango dira.

COVID-19a dela eta, antolatzaileek gogorazi dute ekintzak segurtasun eta babes neurri guztiak errespetatuta gauzatuko direla. Honenbestez, derrigorrezkoa izango da jarduera guztian zehar musukoa erabiltzea eta distantziak mantentzea.



HEMOS DISEÑADO UN HOTEL DE LUJO PARA QUE DESCONECTES DE TODO...Y CONECTES CONTIGO

En nuestro hotel podrás encontrar todo tipo de servicios para hacer de tus vacaciones una experiencia inolvidable: transfer privado para tus desplazamientos; gimnasio totalmente equipado para que puedas seguir con tu rutina de ejercicio; sauna en la que relajarte y purificarte; servicio de habitaciones con una extensa carta para satisfacer tus deseos... ¡Y mucho más!

RESERVA AHORA

## Más información

"Gipuzkoako enpresa eredua determinazio osoz babesteko unea da".

'30 guneak' zabaltzen jarraituko du Donostiak.

Udazken beroa.

**Temas relacionados:** Astigarraga Idioma Euskera

TAMBIÉN TE PUEDE INTERESAR




**Grandland X Híbrido**
Eficiencia eléctrica desde 229€/mes financiando* con pack e-mobility





**Tus vacaciones soñadas**
En pleno corazón de San Sebastián frente a la Catedral del Buen Pastor

AD




VEHÍCULOS DE OCASIÓN

En SPOTICAR encontrarás vehículos de todas las marcas con hasta 3 años de garantía.





## Lo último

1. Aragón confina las ciudades d
Huesca y Teruel
2. Los pelotaris de Baiko prolong
huelga hasta noviembre
3. Las rachas de viento se llevan
casa de cultura de Orendain
4. Erkoreka anuncia cuatro OPEs
Ertzaintza esta legislatura
5. La pandemia acelera en Catalu
4.024 nuevos infectados
6. La pandemia supera los 40,7 r
casos con 1,12 millones de mu

7. Vox justifica su moción como
nacional" ante la "inacción" d
8. El 80% de los pacientes grave
coronavirus tienen obesidad
9. Urkullu no se planteará toque
hasta que no se agoten todas l
10. La tasa de paro en Euskadi baj
tercer trimestre hasta el 10 %

HOME Gipuzkoa Reala Cultura Actualidad Opinión Deportes Economía Vivir ON Participación Servicios

noticias de Gipuzkoa

**Otras webs de Grupo Noticias**
Deia
Diario de Noticias
Diario Noticias de Álava
Onda Vasca

Promociones
Publicidad
Suscríbete a Noticias de Gipuzkoa

Suscripción por RSS
Newsletters
Auditada por OJD
Distribución
Trabajos de impresión

© Diario de Noticias-Edición Digital | Avda. Tolosa 23 20018 DonostiaTel 943 319 200

Aviso legal | Condiciones de uso | Mapa web | Contacto | Cookies | Política de Privacidad